

# AISIALDIA ETA TEKNOLOGIA



## HELBURUAK:

- Teknologia beharrezkoa den egoerak identifikatzen ikastea
- Teknologia berriek egunerokotasunean daukaten eragina aztertzea eta horren inguruan hausnartzea
- Teknologia berrien etorkizunaz hitz egitea

## LANDUTAKO GAITASUNA:

- Zientzia, teknologia eta osasun-kultura
- Ikasten ikasi
- Hizkuntza-komunikazioa
- Informazioa tratatzea eta konpetentzia digitala
- Norberaren autonomia eta ekimena



## JARDUERAREN GARAPENA

- Noiztik bizi gara teknologiarekin harremanetan?
- Historiaurrean teknologiarik bazegoen?
- Industria iraultzaz hitz egiten entzun duzu? Eta iraultza teknologikoaz?

**1.** Galdetu irakasleen artean, etxean, liburu artean begiratu, Interneten nabigatu... eta erantzunak jaso. Ondoren, bizpahiru ikasleko taldeetan elkartuko gara informazioa trukatzeko.

**2.** Zer da teknologia? Zenbait definizio dituen arren, kontzepturik zabalenean espezie batek tresnak sortu, erabili eta ingurunea bere nahi eta beharretara aldatzeko duen jakintza-multzoari deritzo teknologia.

**Ados zaudete definizio horrekin?**

**3.** Zuk, zertarako erabiltzen duzue? Biziko zinatekete teknologiarik gabeko gizarte batean? **Saiatu jarraian dagoen taula betetzen:**

JARDUERA	ESPAZIOA	BALIABIDEAK	MATERIALAK	ONDORIOAK	ALTERNATIBAK
Komunikazioa					
Garbitasuna					
Elikadura					
Aisialdia					
...					

Azkeneko bi zutabeetan ondorioak eta alternatibak zerrendatu dituzue. Ohartuko zineten bezala, erabileraren arabera ondorioak positiboak edo negatiboak izan daitezke.

Beste ondorio bat: teknologiaz inguratuta bizi gara. Eta zenbaitetan, teknologiak familia, aisialdia, lagunak, eta abar bezalako espazioak hartzen ditu. Inoiz ohartu zarete?

**4.** Ziur asko, ezagunak egingo zaizkizue coltan, iphone, android, smartphone bezalako hitzak. Inguruan daukagun gauzekin erlazionatzen dituzue?

**Zerrendatu aurreko termino horiekin erlazionatzen dituzuen gailu, asmakizun edo egoerak.**


**5.**

Inoiz pentsatu duzue nola eta non sortzen diren ondasun horiek? Eta nork eta nola lortzen dituen horiek sortzeko lehengaiak? Posible da lehengai horiek ingurumenari, pertsonen bizi kalitateari edota gure planetaren etorkizunari kalterik egin gabe ekoiztea?

Ziur gaude zuen hausnarketak oso interesgarriak direla. Zergatik ez dituzue gainontzeko ikasleekin konpartitzen.

**Mural antzeko bat egin, eta gelaz gela ideia horiek konpartitzen joan zaitezketete. Animatuko zarete?**